BIZKAIKO
BASOGINTZA ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE FORESTALISTAS DE BIZKAIA

## 2019 KANPAINAKO BASOKO DIRU LAGUNTZAK (BIZKAIKO L.H.)

Bazkide agurgarri hori :

Idatzi honen bidez, Bizkaiko Basogintza Elkartea basoko diru laguntzen espedienteen dokumentazioa jasotzen hasi dela jakinarazten dizuegu.

**EPEA:** Bizkaiko Basogintza Elkartean **2019ko maiatzaren 24 arte** tramitatuko doguz basoko diru laguntzak *(24/2019 Foru Decretua).*

**OHAR GARRANTZITSUA:** Prebentziozko tratamendu fitosanitarioen laguntzak, *1786/2019 Foru Agindua* (Ikusi hurrengo orrialdeetan).

Gai hauek zuentzako interesgarriak izango direlakoan, agur bero bat.

## PLAN DE AYUDAS FORESTALES 2019 (T.H. BIZKAIA)

Estimado/a Socio/a :

Por la presente, os comunicamos que la Asociación de Forestalistas de Bizkaia **ha comenzado a recoger la documentación** para poder tramitar posteriormente los expedientes de Ayuda.

**PLAZO:** En la Asociación de Forestalistas de Bizkaia tramitaremos los expedientes de Ayuda con **fecha límite el 24 de mayo de 2019** *(Decreto Foral 24/2019).*

**ASUNTO DESTACADO:** Ayuda a los tratamientos fitosanitarios preventivos para la enfermedad de las bandas regulado mediante *Orden Foral 1786/2019* (Ver páginas siguientes).

Esperando sea tema de vuestro interés, reciba un cordial saludo.

| ESKUALDEA/COMARCA | HELBIDEA/DIRECCIÓN | EGUNA/DIA | ORDUA/HORA |
|---|---|---|---|
| GERNIKA | Domingo Alegria Enparantza | Lunes y Miércoles (Astelehen eta Eguaztenetan) | 8:30 – 14:00 |
| IGORRE | Udaletxe Behea | Lunes y Martes (Astelehen eta Martitzenetan) | 8:30 – 14:00 |
| DURANGO | Ezkurdi Enparantza | Miércoles y Jueves (Eguazten eta Eguenetan) | 8:30 – 14:00 |
| MARKINA | Aretxinaga 12 | Jueves y Viernes (Eguen eta Barikuetan) | 8:30 – 14:00 |
| BALMASEDA | Correria 18 bis, 1º | Jueves (Eguenetan) | 8:30 – 14:00 |
| MUNGIA | Agirre Jauregia (Aita Elorriaga 1- puerta 3.3) | Viernes (Barikuetan) | 8:30 – 14:00 |

LOS **ASOCIADOS** TAMBIÉN PODEÍS REALIZAR ESTOS TRÁMITES EN LA OFICINA CENTRAL DE ERLETXES (GALDAKAO) EN HORARIO DE TARDE DE LUNES A JUEVES DE 15:30 a 18:00

**BAZKIDEENTZAKO**, TRAMITE HAUEK ERLETXETAKO BULEGO ZENTRALEAN (GALDAKAO) ERE EGIN DAITEZKE ARRATZALDETAN, ASTELEHENETIK EGUENERA 15:30tatik ARRATZALDEKO 18:00 arte.

*Galdakao, 2019ko martxoaren 28a*

***Bizkaiko Basogintza Elkartea***
***Asociación de Forestalistas de Bizkaia***

BIZKAIKO
BASOGINTZA ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE FORESTALISTAS DE BIZKAIA

## MENDI-KONIFEROEN GAIXOTASUNEN TRATAMENDU FITOSANITARIOA

Bazkide agurgarri hori;

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioek oxido kuprosoaren formulatua duten produktu fitosanitarioak merkaturatzea eta lurrean aplikatzea baimentzen dute mendi-koniferoetako gaixotasun kriptogamiko hostogabetzeileen aurka egiteko. Tratamendu hau borondatezkoa da eta bere erabilpena baso jabeen gain egingo da, beti ere, baimenean eta produktu fitosanitarioei buruzko araudiak betetuz.

Bizkaiko Foru Aldundiak, non gai honetan berauekin lan hitzarmen bat daukagu, gutun hau eta baita Foru Agindua bidali digu gure bazkideei helarazteko.

Dokumentu hauek gure gutunarekin batera bidaltzen dizuegu, ala ere dudaren bat edo eduki ezkero, elkartera zein Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzura edo baita Durango, Bermeo eta Gernikako bulego komarkaletara dei dezakezue.

Martxoaren 26ko **1786/2019 Foru Agindua** ere bidaltzen dizuegu 75% (WG) P/P oxido kuprosoaren erabileraren jarraibideekin.

## TRATAMIENTO FITOSANITARIO PARA ENFERMEDAD DE LAS BANDAS

Estimado/a Socio/a :

El Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación ha autorizado recientemente la aplicación terrestre de óxido cuproso para tratar de frenar el avance de la banda marrón en nuestras masas forestales. Este tratamiento tiene carácter voluntario y su aplicación recae en las y los propietarios forestales que, no obstante, debemos cumplir una serie de requisitos establecidos en la autorización y en la normativa sobre fitosanitarios.

La Diputación Foral de Bizkaia, con la que, como sabéis tenemos un acuerdo de colaboración en esta materia, se ha puesto en contacto con la asociación para hacernos llegar una carta y el texto de la Orden Foral que regula la aplicación del tratamiento terrestre, solicitándonos que hagamos llegar esta documentación a nuestros asociados, para que tengan conocimiento directo de la misma.

Estos documentos acompañan nuestra carta, pero si surgiera cualquier duda o si necesitaras información complementaria puedes acceder a ella tanto a través de esta asociación como de los Servicios de Montes y Agrícola de la Diputación Foral de Bizkaia, las OCAs y las oficinas integrales de atención comarcal de Durango, Bermeo y Gernika.

Se adjunta la **ORDEN FORAL 1786/2019**, de 26 de marzo, que establece instrucciones para el uso de óxido cuproso 75 % (WG) P/P.

Gumuzio auzoa (Erletxeta), s/n
48960 Galdakao
T 944 56 62 12
F 944 56 47 59
bizkaia@basoa.org
www.basoa.org

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

*Jabe agurgarria*

Dakizun bezala 2017. urtearen amaieratik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Baskegur-ekin batera, lanean jardun dugu Euskal Autonomia Erkidegoko pinuak erasotzen ari den gaitzari aurre egiteko. Lan horien barruan burutu ditugun ekintzen barruan oxido kuprosoa erabiliz airetiko tratamendua egiteko derrigorrezkoa den baimena eskatuz Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari egin genion eskabidea dago. Ministerioak ez zigun horretarako baimenik eman eta horregatik eskabide berria egin genuen, kasu honetan produktu bera erabiliz baina tratamendua lurretik emanda. Bigarren eskabide horri dagokionez jaso dugun erantzuna positiboa da eta dagoeneko baimena daukagu gure Lurraldean pinudien jabeek produktuaren aplikazioa egin dezazuen; horretarako epea uztailaren 1etik 29ra artekoa da, bi egun horiek barne.

Kontuan hartu behar da tratamendua egiteko Ministerioak, baldintza moduan, irizpide tekniko batzuk ezarri dituela. Irizpide horiek derrigorrez bete behar dira eta agindu horiek benetan betetzen direla kontrolatu behar duen erakundea Bizkaiko Foru Aldundia da. Horregatik zugana jotzen dut oxido kuprosoaren aplikazioa erregulatzen duen Foru Agindua helarazteko.

Aldi berean, gogorarazi egiten dizut tratamendua borondatezkoa dela eta dudaren bat badaukazu Baso eta Nekazaritza Foru Zerbitzuetara, ENBetara edo Bizkaiko Basogintza Elkartera jo dezakezu. Azken Elkarte horrekin akordioa lortu dugu pinudien jabeak diren pertsonek bertara jo eta egokia den aholkularitza tekniko-administratiboa jaso dezaten eta erakundea bera izan dadin prozedura ezarrita dagoen eran kudeatzearen ardura izango duena.

Aldez aurretik eskerrik asko zure lankidetzagatik.

*Estimado/a propietario/a*

Como sabes, desde finales del año 2017 las tres Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, junto con el Gobierno Vasco y Baskegur, venimos trabajando para tratar de frenar la enfermedad que está atacando a los pinos en la Comunidad Autónoma Vasca. Dentro de ese trabajo, una de las acciones que hemos emprendido ha sido la solicitud al Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación de la preceptiva autorización para realizar un tratamiento aéreo con óxido cuproso. Dicha autorización no nos ha sido concedida, razón por la cual realizamos una nueva solicitud, esta vez para un tratamiento terrestre con ese mismo producto. Esta última petición ha sido respondida de forma positiva y contamos ya con autorización para que las y los propietarios de masas de pinos en nuestro territorio podáis realizar la aplicación del producto entre los próximos 1 de abril y 29 de julio, ambos inclusive.

Dado que la realización del tratamiento está condicionada por el Ministerio a una serie de criterios técnicos que son de obligado cumplimiento y que la Diputación Foral de Bizkaia es la institución que debe controlar que, efectivamente, estos preceptos se cumplan, me dirijo a ti para hacerte llegar la Orden Foral que regula la aplicación del óxido cuproso.

Asimismo, te recuerdo que el tratamiento es de carácter voluntario y que puedes resolver tus dudas sobre el mismo poniéndote en contacto con los Servicios forales de Montes y Agrícola, con las OCAs o con la Asociación de Propietarios Forestales de Bizkaia. Con esta última entidad hemos alcanzado un acuerdo para que las personas propietarias de masas forestales puedan dirigirse a ella y reciban el debido asesoramiento técnico-administrativo, de manera que esta entidad se encargue de la gestión del procedimiento conforme a lo establecido.

Gracias de antemano por tu colaboración.

Bilbon, 2019ko martxoaren 28an / Bilbao, 28 de marzo de 2019

**Departamento de sostenibilidad y medio natural.**
**Iraunkortasuna eta ingurune naturala zaintzeko saila**

I. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

### Bizkaiko Foru Aldundia

### Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

**Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 1786/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 26koa. Honen bidez, ezartzen dira 75% [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatuan oinarritutako produktu fitosanitarioak lurrean aplikatzeko zenbait jarraibide, mendi-koniferoetako gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka egiteko.**

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasunerako Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez, salbuespenez baimentzen da 75% [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatua duten produktu fitosanitarioak merkaturatzea eta lurrean aplikatzea mendi-koniferoetako gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka egiteko, produktuon erabilera kontrolatu eta mugaturako ebazpen horretan ezarritako baldintzetan eta epean.

Ebazpen hori manu hauetan oinarritzen da: 1107/2009 (EE) Erregelamenduan (Parlamentuaren eta Batzordearena, 2009ko urriaren 20koa), 43/2002 Legearen 34. artikuluan (azaroaren 20koa, Landare Osasunari buruzkoa) eta 971/2014 Errege Dekretuaren 7. artikuluan (azaroaren 21ekoa, produktu fitosanitarioak ebaluatzeko prozedura arautzen duena).

Bestalde, 3/1994 Foru Arauak (Mendiei eta Babestutako Naturaguneen Administrazioari buruzkoa, ekainaren 2koa) 93. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren eskumenekoa da zaintza-, prebentzio-, lokalizatze- eta azterketa-lanak egitea mendi, hazi eta baso-mintegien izurrite eta gaixotasunei dagokienez, lurren titulartasuna eta produktuak direnak direla. Sailari dagokio, orobat, tratamendurako aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea, eta, eginkizun horren barruan, zerbitzu teknikoek tratamenduetan efikazia handiago lortzeko preskripzioak ematea, ukitutako titularren ekimenez egiten direnean baso-izurriteak eta -gaixotasunak prebenitzeko eta desagerrarazteko lanak. Gainera, garrantzi handikoa da halako produktuak segurtasun-baldintzetan aplikatzea, zeinak landare-osasunari buruzko legerian xedatutakoaren ondorio diren.

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan hartuta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak salbuespenez baimendu duela oxido kuprosoa lurrean aplikatzea mendi-koniferoen gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka egiteko, foru-agindu hau ematen da.

Horrenbestez, kontuan hartuta zer eginkizun esleitzen dizkidaten Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko Foru Arauko 39 eta 64. artikuluek —Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko Legearen 7.a).9) eta 7.b) 1 artikuluetan xedaturikoari dagokionez—, honako hau

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua.—*Tratamenduak***

Lurreko tratamendu orok bete beharko du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Nekazaritza Ekoizpenaren Osasunerako Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenak berariaz baimendutakoa. Ebazpenaren bidez, salbuespenez baimentzen da 75% [WG] P/P oxido kuprosoaren formulatua duten produktu fitosanitarioak merkaturatzea eta lurrean aplikatzea mendietako koniferoetako gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileen aurka egiteko. Beraz:



SECCIÓN I

## ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

### Diputación Foral de Bizkaia

### Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural

**ORDEN FORAL 1786/2019, de 26 de marzo, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, por la que se establecen instrucciones para el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75% [WG] P/P contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en coníferas de montes.**

Mediante Resolución de la Dirección General de Sanidad de la Producción Agraria, del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación de fecha 6 de marzo de 2019 se autoriza excepcionalmente la comercialización y el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75% [WG] p/p contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en coníferas de montes, en las condiciones y plazo que se indican en dicha Resolución, para una utilización controlada y limitada.

Esta Resolución tiene su base normativa en lo dispuesto en el Reglamento (CE) número 1107/2009, del Parlamento y del Consejo, de 20 de octubre de 2009, en el artículo 34 de la Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de Sanidad Vegetal y en el artículo 7 de Real Decreto 971/2014, de 21 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de evaluación de productos fitosanitarios.

De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 93 y siguientes de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales protegidos, corresponde al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural la vigilancia, prevención, localización y estudio de las plagas y enfermedades de los montes, semillas y viveros forestales, cualquiera que sea la titularidad de los terrenos y sus productos, así como la prestación de asesoramiento y ayuda técnica para su tratamiento, que incluye el establecimiento de prescripciones de los servicios técnicos en orden a prestar una mayor eficacia en los tratamientos en aquellos casos en que la iniciativa de la realización de los trabajos de prevención y extinción de plagas o enfermedades forestales parte de las personas titulares afectadas. Asimismo, es del mayor interés que su aplicación se desarrolle en las condiciones de seguridad derivadas de lo dispuesto en la legislación sobre sanidad vegetal.

Visto cuanto antecede, en base a la autorización excepcional concedida por el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación para uso en aplicación terrestre de óxido cuproso contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en coníferas de montes, se adopta la presente Orden Foral.

En virtud, en uso de las funciones atribuidas en la materia en los artículos 39 y 64 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, en relación con lo establecido en los artículos 7.a).9) y 7.b).1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos forales de sus Territorios Históricos

DISPONGO:

**Artículo 1.—*Tratamientos***

Todo tratamiento terrestre deberá ajustarse a lo autorizado expresamente por Resolución de la Dirección General de Sanidad de la Producción Agraria, del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación de fecha 6 de marzo de 2019 por la que se autoriza excepcionalmente la comercialización y el uso en aplicación terrestre de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75% [WG] p/p contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en coníferas de montes. Así:

a) Produktu fitosanitarioei eta produktuok erabiltzeko baldintzei dagokienez:

1. 75% (WG) P/P oxido kuprosoaren formulazioan oinarritutako produktu fitosanitarioak dira.
2. Aplikazio bakoitzeko dosia: % 0,1-0,2 (1-1,6 kg, Cu inorganikoa/ha).
3. Lurreko aplikazio bi egingo dira; haien artean, 14-21 bitarteko egun utziko dira.
4. Erabilera. Banda marroiak eta gorriak sortzen dituzten onddo hostogabetzaileen fungizidadun tratamenduak.
5. Baimenaren ondorioak apirilaren 1ean hasiko dira, eta uztailaren 29an amaituko (biak barne).
6. Segurtasun-epea: ez da ezarri behar.

Horrez gainera:

— Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi behar zaio zer partzelatan egingo den tratamendua. Tratamendua jabe-elkarte edo jabe-talde batek kudeatu behar duenean, talde edo elkarte horrek jakinaraziko du.
— Produktu fitosanitarioak erabiltzeko, honako dekretu honetan ezarritako xedapenei jarraituko zaie: 1311/2012 Errege Dekretua, irailaren 14koa, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena (EOEOn baimendutako eta erregistratutako aplikagailuak).

b) Tratatu beharreko azalerari dagokionez; tratamendua % 75etik beherako hostogabetzea duten 25 urtetik beherako pinuetan baino ez da aplikatuko. Azalera horri kanpo baztertze- edo buffer-eremuak kendu behar zaizkio:

1. 100 metroko tartea herrigune eta eraikuntza guztietatik.
2. 100 metroko tartea urtegi, urmael eta hezegune guztien inguruan.
3. 100 metroko tartea lur gaineko zein lur azpiko ur-hartuneen inguruan.
4. 100 metroko tartea akuiferoen zaurgarritasun altuko edo oso altuko gisa sailkatutako eremuetatik.
5. 100 metroko tartea guztira 10 km$^2$-tik gorako azalerako azpiarroetan kokatutako ur-ibilgu iraunkor (1, 2 eta 3 motakoak) guztien alde bietan eta ibilbide osoan, eta 50 metro 10 km$^2$-tik beherako azalerako azpiarroetan kokatutako ur-ibilgu iraunkor (1, 2 eta 3 motakoak) guztien alde bietan eta ibilbide osoan.

**2. artikulua.—*Aurretiazko baimena***

Mendiei eta Babestutako Naturaguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren 97. artikuluarekin bat, Nekazaritza Zuzendaritzaren aurretiazko baimena beharko da fungizidadun tratamenduek 75 Ha-tik gorako azalerei eragiten badiete edo baso-aplikazioetarako herbizidak erabiltzen badira azalera jarraituetan. Baimena ukatutzat jo beharko da, baldin eta eskaera aurkeztu den egunetik 30 egun igaro badira ebazpen espresurik eman gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIA

**Xedapen Gehigarri Bakarra.—*Informazioa***

Honako hauek emango dute Informazio gehigarria edo argituko dituzte gaiari buruzko zalantzak: Nekazaritza Zuzendaritzako Baso eta Nekazaritza zerbitzuek, eskualdeko nekazaritza-bulegoek, Durango, Gernika eta Bermeko eskualdeko bulegoek eta Bizkaiko Basogintza Elkarteak.

AZKEN XEDAPENA

**Azken Xedapen Bakarra.—*Indarrean jartzea***

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko martxoaren 26an.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Zaintzeko foru diputatua,
ELENA UNZUETA TORRE

a) Con relación a los productos fitosanitarios y condiciones de uso de los mismos:

1.º Productos fitosanitarios de formulados a base de óxido cuproso 75% (WG) P/P.
2.º Dosis por aplicación: 0,1-0,2% (1-1,6 kg Cu inorgánico/ha).
3.º Dos aplicaciones terrestres con un intervalo entre aplicaciones terrestres de 14-21 días.
4.º Uso Tratamiento fungicida contra hongos defoliadores que causan las bandas marrones y rojas.
5.º Los efectos de la autorización serán desde el 1 de abril hasta el 29 de julio, ambos inclusive.
6.º Plazo de seguridad: no procede.

Además:

— Deberá comunicarse a la Dirección de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia las parcelas a tratar. Cuando el tratamiento se fuera a gestionar por una asociación o agrupación de propietarios, será esta quien lo comunique.
— Los tratamientos fitosanitarios serán realizados siguiendo las disposiciones del Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios (Aplicadores autorizados y registrados en el ROPO).

b) En relación con la superficie a tratar: únicamente se tratará en pinares de edad inferior a 25 años y con defoliación inferior al 75%. A esa superficie se le restan las zonas de exclusión o buffer:

1.º 100 metros alrededor de todos los núcleos habitados y edificaciones.
2.º 100 metros alrededor de todos los embalses, lagunas y zonas húmedas.
3.º 100 metros alrededor de las captaciones de agua, tanto subterráneas como superficiales.
4.º 100 metros alrededor de las zonas clasificadas como de vulnerabilidad de los acuíferos tipo alta y muy alta.
5.º 100 metros a cada lado alrededor de todos los cursos de agua permanentes (tipo 1, 2 y 3) situados en subcuencas de superficie total superior a 10 km$^2$ y 50 metros a cada lado alrededor de todos los cursos de agua permanentes (tipo 1, 2 y 3) situados en subcuencas de superficie total inferior a 10 km$^2$.

**Artículo 2.—*Autorización previa***

Conforme al artículo 97 de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos, cuando los tratamientos con funguicidas afecten a superficies superiores a 75 Ha, así como el uso de herbicidas en superficies continuas para aplicaciones forestales, requerirán la autorización previa de la Dirección de Agricultura, que se entenderá denegada si en el plazo de 30 días desde la presentación de la solicitud no recayera resolución expresa.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Disposición Adicional Única.—*Información***

Los Servicios de Montes y Agrícola de la Dirección de Agricultura, así como las Oficinas Comarcales Agrarias, Oficinas Comarcales de Durango, Gernika y Bermeo y la Asociación de Propietarios Forestales de Bizkaia serán quienes proporcionen información adicional o aclaren cualquier duda al respecto.

DISPOSICIÓN FINAL

**Disposición Final Única.—*Entrada en vigor***

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 26 de marzo de 2019.

La diputada foral de Sostenibilidad
y Medio Natural,
ELENA UNZUETA TORRE